

Sanger sekuentziazioak egiteko laginen betekizunak

Laginen kalitateak eta kontzentrazioak zuzenean eragiten du lortutako sekuentziaren kalitatean. Kontuan hartu behar diren alderdiak dira:

- **Arazketa:** Laginen arazketa funtsezko prozesu bat da sekuentzia onak lortu nahi badira. Garrantzitsua da gatz-sobera ekiditea. Kit komertzialak erabili behar dira eta arazketa egitean kalitate kaxkarreko sekuentziazio-datuak eragiten dituzten arazoak kontuan hartzen dituzten kitak izatea komeni da. Halaber, sekuentziazio-erreakzioa baldintza egokietan egin nahi bada, ezinbestekoa da molde bakar bat edukitzea. PCRn banda bat baino gehiago agertzea eragotzi ezin bada, agarosa jelaren intereseko banda moztea eta araztea komeni da. Ahal bada, PCR produktua isurita erakusten duen agarosa jelaren argazki bat eskatzen dugu; ezinezkoa bada, eskatzaileari PCRk banda bakar bat sortzen duela adierazten duen konpromiso bat aurkezteko eskatzen zaio
- **Kontzentrazioa:** kontzentrazioak berebiziko garrantzia du sekuentziazioaren erreakzioan. Horregatik, laginak gutxienero estandar batzuk bete behar ditu, eta kuantifikatuta bidaltzeko eskatzen da. 15-20 µl da gutxienero kantitatea.

DNA mota	Gutxienero kontzentrazioa
Plasmidoa	75-150 ng/µl
Produktua PCR (pPCR)	20 ng /µl
PCR handiak 1000 pb	Kontsultatu

- **Hasarazleak:** Tutu bereizietan bidaliko dira hasarazleak, 3-5 µM kontzentrazioarekin. Tutuak behar den bezala errotulatuta egongo dira. Hasarazlearen gutxienero kantitatea 4 µl/sekuentziazio-erreakzioko da. Hiru sekuentzia baino gutxiago eskatzen badira, jaso beharreko gutxienero hasarazle-kantitatea 10 µl da. Hasarazlearen osakerak sekuentziazioaren kalitatea eragiten du. Normalean, PCR baterako funtzionatzen duten hasarazleek ondo funtzionatu ohi dute sekuentziazio-erreakzioan. Oro har, hasarazleek 55-65°C arteko Tm bat eta 18 pb-ko gutxienero tamaina eduki behar dute, eta egitura sekundarioen osaera eragotzi behar dute, batez ere kanpoko 3'-n. Horretarako, oso garrantzitsua da 4 Gs edo Cs edo gehiagoko errepikapenak ekiditea, ahal den neurrian. Eskatutako hasarazleak beste Tm bat badu, sekuentziazio-zerbitzuaren arduradunari jakinarazi behar zaio. Hasarazlearen arazketa ere oso garrantzitsua da sekuentziazioaren ikuspegitik. Horrela, hasarazlea gaizki arazi bada, edo pixka bat degradatu bada, puntako itzalguneak eta inguru-zarata handia agertuko dira. Normalean, hasarazleak DGPLC bidez edo beste sistema batzuen bitartez arazten dira. Horrez gain,

hasarazleak ondo kontserbatzen badira (izozteko/desizozteko ziklo gutxirekin), minimizatu egiten dira mota horretako arazoak.

Emaitzak ematea

3-5 egun artekoa da emate epea, PCR produktuaren eta Plasmidoaren kasuan (kontsultatu gainerako zerbitzuak).

E-postaz bidaliko dira sekuentziaren kromatograma eta testu fitxategia. Link interesgarriak:

- [Chromas](#)
- [Bioedit](#)
- [Sequence Scanner](#)
- [Staden Package](#)
- [Peak Scanner](#)

Kontsultatu tamaina edo bolumen handiko laginak edo aplikazio zehatzak dituzten prezioak.